




Luis Plaza Velez Kolonbiako sindikalista

“MULTINAZIONALEK AHAL DUTEN GUZTIA EGINGO DUTE BAKE AKORDIOA BETE EZ DADIN”



Xuban Zubiria Elexpe

@xubanzubiria

ARGAZKIA NOAUA

SAT sindikatuak gonbidatuta bi hilabete igaro ditu Luis Plaza Velez sindikalista eta irakasle kolonbiarrak Espainiako Estatuko sindikalismoa aztertzen. Euskal Herrira egindako bisita baliatu dugu Kolonbiaren gaurkotasunaz galdetzeko.

Gazte murgildu zinen mundu justuago baten aldeko borrokan.

Nire militantzia nerabezaroan hasi zen jaioterrian, Kartagenan. Animalien eskubideen alde atera nintzen lehen aldiz kalera. Geroago ikasle mugimenduan murgildu nintzen. Orduko ekintzek eta borrokek egin ninduten giza eskubideen aldeko militante. Kolonbian errealtateak bultzatzen zaitu militantziara. Asko dugu oraindik borrokatzeko eta irabazteko.

Kolonbian justizia sozialaren alde egitea arriskutsua da.

Kolonbiako historiari erreparatuz gero ikusiko dugu kolonialismoaren garaian hasitako indigenen aurkako jazarpenak egun bere horretan dirauela. Orduetik eskubide urraketak aldatu badira ere, hauek ez dute etenik izan. Bizi eredu kapitalista basatiak jazarpena eta miseria gizarteko ia sektore guztietara zabaldu ditu azken hamarkadetan. Lehen eta orain gatazka guztien oinarrian lurraren jabetza dago. Kolonbian lurraren banaketa duina eskatzen duena beti egongo da arriskuan.

Sindikalismoak ere muturreko egoeretan dihardu.

Kolonbian hiru sindikatu nagusi daude: CTC, CGT eta CUT. Nik urte asko daramatzat CUT sindikatuan. Gure sindikatua da gobernuaren politika neoliberalari hortzak erakusten dizkiona. CUT izan da langileen eskubideen aldeko borroka kalera atera duena baita hildakoak jarri dituen ere. Sindikalistok, nekazariekin batera, talde parapolizialen jomuga nagusi bihurtu gara.

Legeak gure jardun sindikala erdi klan-destinitatean egitera behartzen gaitu. Jabeek enpresetan sindikatuen presentzia sumatuz gero, langile guztiak kalera botatzeko eskubidea dute. Kolonbian errazagoa da talde kriminal armatu bat eratzea sindikatu bat sortzea baino. Langileen eskubideen alde jardun duten 3.000 burkide inguru hil dituzte azken 60 urteotan.

Biolentzia politikoz ari gara, honek Union Patriótica ekartzen dit gogora.

80ko hamarkadan FARC eta Kolonbiako Gobernuak egin zituzten negoziazioen testuinguruan sortu genuen milaka herritarrek Union Patriótica alderdia. Negoziazaketa eta bakea bultzatzeaz gain, ezkerreko alternatiba eraldatzaile bat sortzea zen gure asmoa. Bake negozi-

ketek porrot egin zutenean gobernuak gerrillaren jardun militarra aitzakia hartuta, Union Patrióticaren aurkako jazarpenari hasiera eman zion. Milaka izan ziren mertzenario taldeen eskutik bizitza galdu zutenak. Genozidio politikoa izan zen hura.

» “Bakearen alde gauden guztiok praktikan ere adostasunetara heldu behar dugu. Hori lortu ezean betiko neoliberalismoaren tesiak gailenduko dira”

» “Ultraeskuineko talde kriminalen inpunitea amaitu behar da. Izaera politikoa duten hilketen %95-ak epaitu gabe jarraitzen du”

Zu ere hiltzen saiatu dira.

2014ko maiatzaren 16an magisteritzako bilera batetik atera ostean saiatu ziren ni hiltzen. Sikarioak baino azkarra goa izan zen nire eskolta eta horregatik nago bizirik. Mehatxuen ondorioz bost alditan ihes egin behar izan dut Kolonbiatik. Oraindik ezin naiz familiarekin Kartagenan bizi. Segurtasunagatik Bogotan bizi naiz.

Fusilak atzetik edukitzeko arrazoi bakarra izan da urte askotan langileen eskubideen alde egin dudana jardun politikoa eta sindikala. Estatuak laguntza eskaintzen dio mehatxatua dagoen orori baina inondik ere ez da nahikoa. Ultraeskuineko talde kriminalek urte luzez izan duten inpunitea amaitu behar da. Izaera politikoa duten hilketen %95 epaitu gabe jarraitzen du.

FARC-en eta Kolonbiako Gobernuaren arteko akordioak biolentzia sistematiokoari amaiera eman beharko lioke...

Kolonbiako gizarteak ez du hildako

gehiago nahi. Zoritzarrez, boterearen zati batentzat gerra negozio bihurtu da. La Habanan lortutako akordioa oso pauso garrantzitsua da, baina asko falta zaigu oraindik. Lurraren banaketa eta herrialdea bakera emango duen bide orriaren inguruan adostasunetara heldu dira bi aldeak. Orain adostasun horiek errealtate bihurtzeko egin behar dugu lan.

Argi esan behar da ordea gobernuak ez dela sinatutakoa betetzen ari. Gerrillarentzat eraiki behar zituzten 27 gune desmilitarizatuen arrastorik ez dugu oraindik. Gerrillariak beraiek ari dira guneak eraikitzen. Bizi baldintzak muturrekoak dira han. Janaria eta sendagaiak boluntarioen karabanek ekartzen dituzte, ur edangarririk ez da, gerrillari asko gaitoxen ari da...

FARC eta gobernuak berriz elkartu dira akordioa indartzeko asmoz.

Kolonbiako gerra egoeraren azpian lurraren jabetza dago nagusiki. Akordioetan lurren eraldaketa ere jorratzen da. Kolonbiako lurren ia jabetza osoa duten multinazional eta korporazio handiek ahal dutena egingo dute gobernuak sinatutakoa beste ez dezan. Paramilitarismoaren mamua elikatzen jarraitzen dute eta horrek asko zailtzen du bakea.

Nekazarien aurkako jazarpena sistematikoa da. Gerrillarekin hitz egiteaz gain, berehalako neurriak hartu behar ditu gobernuak. Kolonbia guztiak sufritzen du talde kriminalen jarduna. Haien aurka egin ezean, ezingo da bake prozesua indartu.

Nola ikusten duzu etorkizuna, ezagutuko dugu bakea inoiz?

Leioa erdi irekia ikustearekin konformatuko nintzateke. Esperantza ez dut galdu, baina ez naiz baikorra prozesuaren aurrean. Biolentzia guztien amaiera oraindik oso urruti ikusten dut.

Bitartean Kolonbiako ezkerreko mugimenduetan ez da lortu beharrezkoa dugun batasuna. Ezkerreko mugimendu eta alderdietan protagonismo nahi handiegia dago. Denek prozesuaren sustatzaile eta bozgorailu izan nahi dute eta hori ezinezkoa da. Bakearen alde gauden guztiok praktikan ere adostasunetara heldu behar dugu. Hori lortu ezean betiko neoliberalismoaren tesiak gailenduko dira eta hori hondamendia litzateke Kolonbiarentzat. ■